

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 27a / 598. zenbakia



**MIREIA GABILONDO**

'Kutsidazu bidea, Ixabel' filma zuzenduko du.

ANGIOZAR: SAN MIGEL JAIK/6 • ELKARRIZKETA: IÑIGO GALLASTEGI IGERILARI BETERANOA/8

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 24**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**ZAPATUA, 25**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**DOMEKA, 26**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15

**ASTELEHENA, 27**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**MARTITZENA, 28**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87

**EGUAZTENA, 29**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**EGUENA, 30**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Ambulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 53 47 20  
Osasun etxea ..... 943 76 24 40  
Asepeyo ..... 943 76 16 43  
Pakea ..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23  
Odol emaitzak ..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32  
Igerilekuak ..... 943 76 20 51  
Kultura etxea ..... 943 77 91 58  
Liburutegia ..... 943 77 91 62  
Kiroldegia ..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia ..... 943 76 14 92  
Erregistroa ..... 943 76 13 15  
Jardun ..... 943 76 36 61  
Idolaz ..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara ..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea ..... 943 76 26 85  
Bedelkar ..... 943 76 04 68  
Akulu AEK ..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltzgia ..... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Angiozar</b> Domekak: 11:00. <b>Moja Zaharrak</b> Lanegunak: 08:00. <b>Mizpirualde</b> Lanegunak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
<b>Santa Marina</b> Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	<b>Antzuola</b> Domekak: 10:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>Sierbak</b> Lanegunak: 19:30	<b>Uzarraga</b> Domekak: 10:00.
<b>Osintxu</b> Domekak: 12:00.	<b>Elgeta</b> Lanegunak: 09:00. Zapatuak: 19:30. Domekak: 12:00.
<b>Elosu</b> Domekak: 11:00.	<b>URTE-MEZAK</b>
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	<b>Santa Marina</b> Hileko 2. domekan, 13:00etan.
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	<b>San Pedro</b> Hileko 3. domekan, 09:30ean.
<b>Elorregi</b> Domekak: 10:30.	
<b>Labegaraieta</b> Domekak: 11:00.	
<b>San Lorenzo</b> Zapatuak: 20:00.	

**OHARRAK**

**1948AN JAIOAKOAK**  
1948an jaiotako bergarrek afaria izango dute urriaren 2an, Zabala jatetxean. Izenematea (45 euro), Euskadiko Kutxan. Afari egunean autobusa izango da jatetxera joateko, 21:00etan Frontoitik.

**1961EAN JAIOAKOAK**  
1961ean jaiotako afaria urriaren 2an Iraho jatetxean. Izenematea (15 euro) Dixulan eta Nahikarin, irailaren 28ra arte.

**PINTURA ETA MARRAZKETA IKASTAROA**  
Beart elkarteak 6-15 urte bitarteko gaztetoendako pintura eta marrazketa eskolak antolatu ditu. Ikastaroa urrian hasiko da, Boluko egoitzan. Eskolak zapatuetan izango dira, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 57 (Oihana) telefonoetan. **KILOMETROAK**  
Urriaren 3an Zarautz-Orion ospatuko den Kilometroak jairako autobusa antolatu du Aranzadi Ikastolak. Izenematea eta argibideak: 943 76 90 71.

**JARDUNENAGENDA**

**TXAPLIGU TALDEA**  
Txapligu taldeak (8-11 urte) ikasturtea hasiko du urriaren 9an. Izenematea Jardunen, Errotalde jauregian.

**TXISKRILABI TALDEA**  
Txiskrilabi taldean parte hartu nahi duten 12-16 urte bitarteko gaztetoek Jardunen eman dezakete izena. 943 76 08 19.

**JOLASLEKU IBILTARIA**  
Hurrengo egubakoitzean, urriaren 1ean, Simon Arrietan izango da Jolasleku Ibiltaria, 17:00etatik 19:00etara.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.  
**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERGARAN**

**Simon Arrieta hil ondorengo 25. urteurrena**

Simon Arrietaren heriotzaren 25. urteurrena gogoratzeko, bergarar margolariaren gaineko hitzaldia izan zen 1994ko irailaren 23an, Miguel Altunako aretoan. Victoriano Gallastegi alkateak, Jose Mari Larrañaga Miguel Altunako zuzendariak, Saenz de Gorbea arte kritikariak eta Juan San Martin Ararteko ohiak hitz egin zuten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**



— Ni zurekin zorretan nago.

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Zapatua, 18 **7 °C**

**MAXIMOA**  
Egubakoitza, 17 **29 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)**  
**10 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	17 °C	13 °C	8,6 l/m²
Eguena, 16	21 °C	14 °C	— l/m²
Egubakoitza, 17	29 °C	9 °C	— l/m²
Zapatua, 18	28 °C	7 °C	0,2 l/m²
Domeka, 19	19 °C	15 °C	0,3 l/m²
Astelehena, 20	25 °C	15 °C	— l/m²
Martitzena, 21	20 °C	11 °C	0,9 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKOPELIKULAK**

**'LA MALA EDUCACIÓN'**

ZUZENDARIA: PEDRO ALMODOVAR. AKTO-REAK: GAEL GARCIA BERNAL, FELE MARTINEZ, JAVIER CAMARA.

**HARIA.** Almodovar txikitako orotzaperetan oinarritu da bi garaie-tan banatutako istorio bakarra kontatzeko.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●



**'SHIN CHAN: INBASIOA'**

ZUZENDARIA: YOSHITO USUI.

**HARIA.** Estralurtar armada maltzur bat Lurra inbaditzea planeatzen ari da. Gizakiak dominatu nahi dituzte eta mundu guztia berdin jantzi... emakume bainu-jantziarekin! Itxaropen bakarra dago: Ultra heroien boterea. Baina horren guztiaren gakoa Shin Chan bihurriarengan dago.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ● ● ● ● ●

**disdira**

ile apaindegia edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

**Aldoka Maldoka**


TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA


**TELEIXA BILTEGIAK**

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



## ATREBENTZIAEZPADA/ Donostiako Zinemaldia ospatzen ari da. Badaukazu zinera joateko ohiturarik?



**JOSE LUIS PAGALDAI**  
63 urte



**LAURA ETXANIZ**  
42 urte



**JOSEAN ROBLEDO**  
38 urte



**MARIA ANGELES RUBIA**  
49 urte



**PEPI OT**  
32 urte



**FCO. JAVIER BAKAIKOA**  
55 urte

Zinera ez naiz joaten, eta telebistan ere ez daukat pelikulak ikusteko ohitura handirik. Gaztetan zinera joaten nintzen noizean behin baina andregaiak nahi zuelako, besterik ez.

Gustuko dut baina bi ume txikirekin orain gutxiago joaten naiz. Lehen Donostiako Zinemaldira ere joaten nintzen. Orain, berriz, pelikulak gertuko zineetan ikusten ditut.

Zinera noizean behin joatea gustatzen zait, hilean bi edo hiru aldiz gutxi gorabehera. Zinemaldira, berriz, ez naiz inoiz joan, eta orain alaba txiki bat dugu eta harekin ezin dut joan.

Zinera sarritan ez baina noiz edo noiz joaten naiz, normalean semearekin Gasteizera. Zinemaldira, berriz, sekula ez dut joateko irrika berezirik izan. Gustuko pelikulak ikusita nahikoa dut.

Noizean behin joaten naiz zinera. Iaz Donostiako Zinemaldian izan nintzen jakinmina nuelako nolakoa zen ikusteko, baina ez zitzaidan askorik gustatu, beharbada gehiago espero nuen.

Lehen joaten nintzen baina orain ez, telebistan pelikulak ematen dituztenez erosoago egoten da etxean. Zinemaldira, berriz, ez naiz sekula joan. Irratitik jarraitzen dut pixkatxo bat.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK ZULOAK IBARGARAIN** Auto gidari batek bere kexa azaldu digu Ibargarai kalearen amaieran sekulako zuloak daudela eta. Saihesbidetik bertara sartzen denean zuloak saihesten ibiltzen dela esan digu, eta euria egiten duen egunetan okerragoa izaten omen da egoera. "Lanak amaitu arte guztiz ez dute konponduko baina gutxienez, bitartean, zuloak estali egin beharko lituzkete", esan digu. /I.A.

### ETABARRUAN...

ASTEKO /5

#### Osintxuko zubi berria

Osintxuko zubi berria egiten dihardute joan den uztailetik. Urtarrilerako gertu izango da.

KIROLA /9

#### Ehiza txapelketa

Unai Etxeberria eta Vicente Uribesalgo nagusitu ziren herriko ehiza txapelketan.

KULTURA /13

#### Mireia Gabilondo

Bergarar aktorea *Martin* telesaioan dabil. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma zuzenduko du datorren urtean.

### ASTEKODATUA

# 26

#### PARTAIDE HERRIKO EHIZA TXAPELKETAN

Domekan Zanbranan jokaturako Bergarako ehiza txapelketan 26 partaide izan ziren. Unai Etxeberriak irabazi zuen txapelketa eta beteranoen mailan Vicente Uribesalgo nagusitu zen.

### BESTEKEESANA

**“Gazteek bizkarreko arazoak izateko hiru arrazoi daude batez ere: egoneko bizimodua, estresa eta elikadura txarra. Umeek egoneko bizimodua egiten dute gero eta gehiago eta gizarteak ere bide hori hartu du. Umeetan ere ariketa fisiko falta sumatzen da. Gure bizkarra ez dago diseinatuta beti eserita egoteko. Penagarria da baina umeak estresatuta bizi dira. Eskolatik kanpo ekintza pila bat dituzte. Gainera, umetatik hasita presio izugarria jasaten dute etorkizunean zer egingo duten erabaki dezaten. Erabat lotuta daude estresa eta bizkarraren posizioa: sorbaldak erori egiten dira. Elikadura ere hor dago. Gaur egun, proteina, azukre eta manufaturatutako produktu gehiegi jaten da eta horiek organismoa aldatzen dute zuzenean zehar gaixotasunak sortuz.”**  
**IRENE UNZUETA / Fisioterapeuta**  
**‘El Diario Vasco’/04-09-17**

### BERAIEKDIÑO/ Andres Osa ‘Sakona’



#### Gaztetxeak

**I**ruñeko gaztetxea, Larrabetzukoa, Donostiakoa eta abar luzea izan da hedabideentzat udako janaria. Baina berria gertatzen ari dena ez da berria. Azkena ere ez da izango. Zoritxarrez gauzek berdintsu jarraituko dute erakunde lokalek eta goragokoei agintekeria legetzat eta jokabide zat hartzen duten bitartean behinik behin. Agintekeria horren aurka borrokatzeko gazterik dagoen bitartean itxaropenik ere izanen da. Gatozen, labur bederen, jokabide antzuak, kaltegarriak, irtenbide guztiak ixten dituztenak, sentsibilitatearen arrastorik agertzen ez dutenak salatzeraz.

Non nahi dugu ikusi gure gazteria? Kale gorrian harantz-honantz zer egin ezean, txurru-tean eta hala moduz espaloiginean balantzaka? Edo zerbaitek okerragoa? Zer eskaintzen dio gizarte honek gazteriarri?

Gaztetxe asko sortu dira, inoiz ez agintarien inizatibaz

gazteen euren ekimenez baizik. Gazteak ikusi izan ditugu kuartel zaharrak edo herrian abandonaturik dauden etxeak okupatzen eta dotore ipintzen; ikusi ditugu gogotik lanean barne eraketa, diziplina, ekintzak, hitzaldiak eta abar modu egokian antolatzen,

**“Gaztetxe asko sortu dira, inoiz ez agintarien inizatibaz gazteen euren ekimenez baizik”**

gazteentzat gune erosoak jartzen. Hor dabilzanean hor dabilzala eta bestela non? Non hobeto?

Gaztetxe bat antolatzen hasten direnean ziur egon debekua gainean dutela. Une horretan sortzen dira,

Udalaren aldetik eraikuntza proiektu berriak. Oztopoak aurrena, debekua ondoren, beste inon aukerarik eman ez eta gainera egurra mantso-mantso erretiratzeko ez badira. Zer, kontrolatu ezin ematen du hainbeste buruhauste? Bada garaia gazteriarren alde zerbaite serio egin nahi bada, autonomia, auto eraketa eta hori guztia debekatu ordez gauzatzeko laguntzeko.

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldegi  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elempuru  
Miguel Angel  
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurritzakoko  
Kultura salla



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**HIRIGINTZA/** Proiektuak 10,7 milioi inguruko aurrekontua dauka eta atzerapen ugari izan ditu 2002ko abenduan aurkeztu zutenetik

# Agorrosingo igerileku handia bota dute eta abian da kirolgune berriko proiektua

EDU MENDIBIL

**Agorrosingo instalazio zaharrak botatzeko lanak egiten ari dira Antzibar SL enpresako langileak joan den astetik. Egunotan kanpoko igerileku handia zena *desagerrarazi* dute. Agorrosingo kirolgune berriak 10,7 milioi euroko aurrekontua du.**

Antzibar SL enpresako langileek igerilekua botatzeko lanekin jarraitzen dute. Lehengo astean taberna eta Bergara Igeri Elkarteko bulegoa izan dituen eraikina bota zuten eta egunotan kanpoko igerileku handia zena *desagerrarazi* dute.

Lehen fase honetako lanek 2 milioi euro inguruko aurrekontua daukate. Bergarako Udalak eta Antzibar SL enpresak hitzartutakoaren arabera, maiatzaren erdialderako instalazio berriaren egitura eraikita egongo da.

Behin lehen faseko lanak amaitu ondoren, kirolgune berria eraikitzeke lanak adjudikatuko ditu Udalak.

## HIRU FASE

Dena den, 2002ko abenduan kirolgune berriko proiektua aurkeztu zutenetik hona lanak behin eta berriz atzeratu dira eta Udalak ez du azalpen argirik eman.

Hasierako egitasmoaren arabera, estalitako bi igerileku (21x25 m eta 20x25,5 m), aldagelak, gimnasioa, squasherako frontoia, haurtzaindegia eta kafetegi-jate-txea eraikiko liriteke lehen fase batean. Ondoren, jolas igeritokia (neguan estalkia izango lukeena) egingo da. Azken fasean, berriz, belar artifizialeko zelaia eraikiko litzateke Ipintzan. Proiektu osoaren aurrekontua 10,7 milioi eurokoa da. Proiektua Alvaro Perez de Amezaga eta Jorge Muntaniola arkitektoena da.

## NEGUKO ORDUTEGIA IGERILEKUAN

Kirolgune berria egin bitartean, erabiltzaileak estalitako igerileku txikiarekin konformatu behar dira. Dagoeneko neguko ordutegia martxan da: aste barruan 07:00etatik 21:00etara izango da zabalik eta zapatu eta domeketan, berriz, 09:00etatik 19:00etara.



Igerileku handia zena botatzeko lanak egiten dihardute egunotan Antzibar enpresako langileek.



## Udaltzaingoaren deia semaforoak direla

Bergarako Udaltzaingoak dei egiten die herriko gidariei semaforoak kontuan izateko. Udaltzaingoko iturrien arabera, semaforoetako argia laranja kolorean dagoenean azken unera arte presatzen dira gidariak. Hori dela eta, azkenaldian susto bat baino gehiago izan da. Eskolatara-ko sarrera-irteeretan ere arazoak izan dira hainbat gidarirekin.

Hori dela eta, Udaltzaingoak semaforoei kasu egiteko eskatu nahi diete gidariei, istripurik ez gertatzeko.



## Gripearen kontrako kanpaina abian

Gripearen kontrako kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du aurtien. Bergarako anbulatorioan (943 03 54 00 zenbakian) txertoa hartzeko txanda eska daiteke. Asteazkenean zehar Osintxun (irudian) eta Labegaraian ere izan dira Osakidetzakoak.

**BERGARA MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**FRONTOI**

**TABERNA**

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**HIRU BIDE**

Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

**SANTOS**

**TIEN 21**

Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**¡AHA!**

Antzuolako Hizkuntza Akademia  
zabandu berria ANTZUOLAN

ZATOZ ALEMANA IKASTERA!

Irakasle tituluak

Kalegoi 20  
Tel.: 943 75 21 11 • 649 318 385

**AZPIEGITURAK/** Aurrekontua 1.200.000 euro pezeta inguru da

# Osintxuko zubi berria datorren urte hasierarako gertu izango da


EDU MENDIBIL

Osintxuko zubi berria egiteko lanek aurrera jarraitzen dute. Altuna y Uria enpresako langileek lanean dihardute joan den uztailaren erdialdetik. Lanak erritmo onean doaz eta proiektuko arduradunen arabera, zubi berria urtarril alderako amaituta izango da.

Bergarako Udalak eta Soraluco kooperatibak bere garaian sinatu zuten hitzarmenaren arabera Soraluco egin da proiektuaren kargu. Hainbat atzerapenen ondorioz, lanak joan den uztailaren erdialdean hasi ziren. Esan bezala, Altuna y Uria enpresari agindu zioten proiektua, eta zubi berria urtarril alderako amaituta izango da. Halaxe adierazi digute Soraluco enpresako iturriek. Lanek 1.200.000 euro inguruko aurrekontua daukate. 250 metro inguruko harri-lubeta bat ere egingen dihardute Soraluco enpresaren inguruan.

## TONA ASKOKO KAMIOIAK OSINTXUN

Zubi berriari dagokionez, Geron-do eta Soraluco artean eraikitzen



Zubi berriak 35 metroko luzera izango du.

dihardute. Osintxuko auzotarrak aspaldi kexatu ziren zubi zaharretik tona askoko kamioiak pasatzen zirelako, eta konponbidea aldarrikatu zuten behin eta berriz. Zubi berria aspaldiko egi-

tasmoa zen. Osintxutik Soralu-cera zein inguruko gainerako enpresetara joateko zubi berria erabili beharko da datorren urte-tik aurrera. Zubi berriak 35 metroko luzera izango du.

# San Pedroko dendariak kalea hobeto argiztatzea eskatu dute

E.M.

San Pedro kaleko dendariak haserre daude aspaldian Udalarekin. Kalea behar den moduan argiztatzea eta han diren edukiontziak behar denean huestea eskatzen diote Udalari. San Pedro kaleko dendarien izenean zera adierazi digu Arantzazu Urangak: "Aspalditik ari gara kalearen argiztatzea aldarrikatzen. Kalea oso ilun dago, ez dago argi nahikorik, eta dendak dituen kale batendako egoera tristea da. Bestetik, edukiontziak sarritan zaborrez beteta egoten dira. Udalak edota Deba-

goieneko Mankomunitateak zer-bait egin beharko lukete horren aurrean. Kalea txukun egotea eskatzen dugu, besterik ez. Aspaldiko arazoa da eta neurriak hartzeko ordua dela uste dugu".

## DIRULAGUNTZEN ZAIN

Juanjo Arrieta zinegotziaren arabera, Udalak badauka asmoa herri barruko kaleetan argiztapena hobetzeko: "Horretarako Izartu programako dirulaguntzen zain gaude. San Pedro kaleko dendarien kexak funtsezkoak dira eta ahal dugunean ekingo diogu kaleen argiztapena hobetzeari".



San Pedroko dendarien ustetan kaleak ez dauka argi nahikorik gauzez.



## Gaztetxoek egonaldia Eginon, Jardunekin

Ikasturtean zehar euskara errefortzuetan ibilitako gaztetxoek egonaldia egin zuten irailaren hasieran, Eginon, Araban. 6-12 urte bitarteko 34 neska-mutiko joan ziren, lagunartean ondo pasatu eta ikasturteari begira euskara maila hobetzeko asmoz.

Gaztetxoekin batera Amaia Epelde, Leire Iruin, Goreti Fernandez eta Itziar Jauregi begiraleak izan ziren Araban. Eguraldia lagun, mendi irteerak, eskulanak edota antzerki emanaldiak egiteko aukera ere izan zuten.

## LABUR

### Helduen Eskolan ikasturte berrirako matrikula zabalik

Helduen Eskolan matrikultzeko interesa dutenek irailaren bukaerara arte izango dute aukera, ondoko ordutegiarekin: aste barruan 09:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Helduei zuzendutako eskaintza zabala dauka eskolak, titulazioa lortu ahal izateko zein ezagupen mailan sakontzeko. Argibide eske Irizar jauregiko lehen solairura edo 943 76 44 52 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

## ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tel.: eta faxa: 943 76 17 09

## AGIRREBEÑA JATETXEA

Berritua  
eta  
handiagoa

- Berritua eta handiagoa: 90 lagunendako janlekua
- Eguneko menua, asteburuko menua eta karta
- Etxeko postreak
- Asteburuetan, mariskoa eta arraina, aurretik eskatuta

Ibarra kalea 2, Bergara. Telefono BERRIA: 943 76 21 45.

## ORRASKI ile. apaindegia



## ORDUTEGI BERRIA

- Asteartetik ostegunera 9:00etatik 16:00etara
- Ostirategian 9:00etatik 19:00etara
- Larunbatetan 8:00etatik 14:00etara

San Pedro 6 - Tel.: 943 76 47 01

**JAIK/** Ohiko San Migelen zeruratzea eguaztenean, hilaren 29an egingo da, iluntzean

## San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozar auzoan, eta gaur hasiko dira, egubakoitza

E.M.

San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozarren gaur, egubakoitza, hasi eta eguaztenera bitartean. Aste bukaeran ekitaldi ugari izango da, rock kontzertuak, mozorro herri afaria eta kirol jarduerak tartean. Eguaztenean, berriz, San Migel eguna ospatuko da.

Esan bezala, gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak Angiozarren. Etxafuegoen jaurtiketak eta kanpai hotsek emango diete hasiera jaiei iluntzeko 20:00etan. Era berean, Ikurrina jarriko dute herriko etxean. Gauean, rockaren txanda izango da: Txato Plato, AK-47, Rotten Teenagers, Lau eta Anger taldeek joko dute Angiozarren, 23:00etan hasita. Jarraian DJ festa izango da. Goizaldean, txokolate beroa banatuko dute.

### HERRI KIROLAK DOMEKAN

Zapaturako, berriz, hainbat ekitaldi prestatu ditu Angiozarko Jai batzordeak. Arratsaldean, 15:30ean, plater tiroketa txapelketa jokatu da eta 17:30ean, briska txapelketa izango da Pagomendi elkartearen.



Aste bukaeran hainbat ekitaldi izango dira Angiozarren. Argazkian, iazko San Migeletan elizpean ateratako irudi bat.

Gauerako, beldurrezko gaua iragarri dute. Mozorroa jantzi eta herri afarian murgiltzeko aukera egongo da. Sardinak eta saiheskia prestatuko dituzte San Migel elizako elizpean. Gauerdian, dantzaldia izango da, Gardoki taldearen eskutik.

Domekan, hilaren 28an, Meza Nagusia izango da 11:00etan, pilota partiduak jokatu dira jarraian eta ondoren Danok Bat txarangak giroa alaituko du. Arratsaldean herri kirolak izango dira plazan eta mus txapelke-

ta Pagomendin, 18:00etan.

Azkenik, San Migel egunean, hilaren 29an, Meza Nagusia egongo da 11:00etan eta arratsaldean umeendako jolasak. Jaiei bukaera emateko, San Migelen zeruratzea egingo da, iluntzean.

## LABUR

### Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria, abian gaurtik

Jardun elkartearen eskutik, haurrei zuzendutako Jolasleku Ibiltaria izango da gaur, egubakoitza, Fraiskozurin, 17:00etatik 19:00etara. Jarduneko begiraleen laguntzaz jolasean eta kantuan aritzea aukera izango dute gaztetxoek.

Datorren egubakoitzean, urriaren 1ean, Simon Arrietan izango da Jolasleku Ibiltaria eta urriaren 8an, berriz, Domingo Irala kalean.

### Plastiko bilketa egingo da martitzenean

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak plastiko bilketa egingo du martitzenean, hilaren 28an. Siloa estaltzeko plastiko beltza edota negutegietan eta belar boletan erabiltzen dena batuko dute.

Bergaran Ugarrizan (granja parean), Murinondon (trenbide ondoan) eta San Juan auzoko eliza aurrean egingo dute bilketa. Argibideak 943 76 25 47 zenbakian.

# MOISES AZPIAZU dantza taldea

## Plazara dantzara!



## Matrikula epea zabalik!

**Adina:**

4 urtetik 15 urtera bitartean

**Irakasleak:**

*Irantzu Lizarralde*

Tel.: 676 520 368/ 943 76 36 36

*Maite Lazkano*

Tel.: 680 558 357/ 943 76 05 49

## ANIMA ZAITEZ!


# GRUPO RKUZ

1950  
Zure etxea da  
2004




**RKUZ**  
ALTZARIAK  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
MUEBLAS ALTZARIAK  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



**RKUZ**  
SUHAILDE INTEGRALA  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**RKUZ**  
ELEKTRAGAILUAK  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA



expert 

FAGOR 

## ELKARRIZKETA

IÑIGO GALLASTEGI/IGERILARI BETERANOA

**"Beteranoen mailan, Euskal Herriko errekorrak haustea da nire erronka aurtengo denboraldirako"**

E.M.

Bergara Igeri Elkarteak eman duen igerilaririk onenetakoa izan da Iñigo Gallastegi *Poti*. 10 urte igeriketa utzi zuela igaro ondoren, 32 urterekin, berriro itzuli da igerilekura, beteranoen mailan. Bartzelonan bizi da.

**Zer dela eta itzuli zara berriz lehiaketara?**

Azkenaldian monitore gisa nabil lanean Hospitaletoko bi igerilekutan. Lan horrek aukera ematen dit entrenatzeko eta berriro lehiatzen hasia erabaki nuen, nire burua ondo ikusten nuen-eta. Katalunian izugarrizko zaletasuna dago, bai igeriketarako eta bai waterpolorako ere. Instalazio bikainak dituzte eta primerako igerilariak iriteten dira Katalunian. Beteranoen probatan ere jende mordo ibiltzen da. 90 urteko gorako pare bat agure ere ikusi dituzte igerian. Ikaragarria da.

**Zein probatan hartzen duzu parte?**

Beteranoen maila 25 urtetik gorakoena da eta bost urtetik bost urtera egiten dira mailak. 25-30

urte bitartekoena, 30-35 bitartekoena... Azken urtean azken honetan jardun dut eta gauzak nahiko ondo joan zaizkit: uztailen jokaturako Espainiako beteranoen txapelketan, Sabadellen, bigarren geratu nintzen bizkar estiloko 50 eta 200 m-ko probetan eta 100 m-koan laugarren izan nintzen. Era berean, Club Natació Catalunya taldearekin, urrezkoa lortu genuen 50 m estiloetako proban, Espainiako errekorra gaintuz. Maila oso handia zegoen baina talde oso ona genuen. Benetan pozgarria izan zen Espainiako errekorra lortzea.

**Eta aurtengo denboraldia-ri begira, zein asmo?**

Ez dut lehengo taldean jarraituko eta Katalunian Bergara Igeri Elkartearen izenean lehiatze-

ko asmoa daukat. Nire taldea izan da beti eta ilusia egingo lidake bergarar moduan lehiatzeak. Joan zen astean Bergara Igeri Elkartearen jardundako hamabost bat lagun bildu ginen afari baten, Altzasun, eta komentatu nien beteranoen talde bat osatzeko aukera. Gauza ederra izango zen.


**Beteranoen mailan ez dago proba askorik Euskal Herrian, ala?**

Ez dago Katalunian dagoen kultura hori eta pena da. Beteranoen mailako errekorrak erregistratuta ote diren jakin nahi dut. Hortik abiatuta, Euskal Herriko errekorrak haustea da nire helburua, bizkar estilokoak behinik behin.

**Olinpiadetan jarraitu dituzu igeriketa probak? Zer nabarmenduko zenuke?**

Argi dago Michael Phelps-ek lortutakoa mundiala izan dela. Bera da onena, zalantzarik gabe. Hala ere, Japoniako igerilariak sorpresa atsegina izan dira. Horien artean, Kosuke Kitajima atsegin dut gehien. 1,77 m altuera baino ez du, baina bular estiloko 100 eta 200 m-ko probak irabazi zituen.

*"Katalunian Bergara Igeri Elkartearen izenean lehiatzeko asmoa daukat"*



ARGAZKILARIA

**Gipuzkoako pilota txapelketako senior mailako bi partidu gaur**

E.M.

Gipuzkoako klubaren arteko pilota txapelketaren barruan, senior mailako bi partidu izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Lehenbizi, senior lehen mailan, Joseba Herranek Billabonako Bearzanen kontra jokaturako du. Jarraian, senior bigarren mailan, Igor Apraiz eta Beñat Iñarra bergararrek Intxaurrendoko

bikotea izango dute aurrez aurre. Joan den aste bukaeran hasi zen Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa. Bergara KE ordezkatuz, 25 pilotari inguru arituko dira. Finalak, ohikoa den bezala, Gabonen aurretik jokaturako dira.

**KADETE ETA SENIOR MAILETAN NAGUSI**

Aurreko egubakoitzean Bergaran jokaturako partiduetan, kadete eta senior mailetako partiduak aurrera ateratu zituzten etxeok:

kadete mailan, Ibon Berraondo eta Mikel Mujika Zumarragako Oruesagasti-Plazaola bikoteari nagusitu zitzaizkien, 22-10. Senior mailan, berriz, Ander Muruguzak eta Igor Gutierrezek Azkoitiko Larramendi eta Zapiain mendean hartu zituzten, 22-16. Gazte mailako bikoteak, aldiz, ez zuen partidu onik egin eta Eneko Muguruzak eta Oier Aldaik 2-22 galdu zuten Amezketa Elurbe eta Mendizabalen aurka.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Joan den astetik Bergara KEko 25 bat pilotari ari dira Gipuzkoako txapelketan.

**JAUJA  
KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Jose M. Martin**  
pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia  
Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

**Kabutzia**  
ARRAINDEGIA  
Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

GARRAIOAK  
**ANDUZU**  
TRANSPORTES  
BERGARA  
607 349 043  
  
**Grua zerbitzua**  
Zerbitzu publikoa eta  
era guztietako kargak

**REMENTERIA**  
Altzariak  
Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan  
Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29



EHIZA

# Unai Etxeberriak irabazi zuen domekan Bergarako ehiza txapelketa

Zanbranan jokaturako proban, beteranoen mailan, Vicente Uribesalgo nagusitu zen

E.M.

Bergarako ehiza txapelketa jokatu zen domekan Zanbranan, Araban. Herriko 26 ehiztarik jardun zuten lehian eta Unai Etxeberriak eskuratu zuen garaipena. Beteranoen mailan, berriz, Vicente Uribesalgo izan zen irabazlea.

Ehizan aritzeko eguraldi aproposa izan zuten bergarar ehiztariek. Esan bezala, 26 lagun aritu ziren lehian Oilagorra elkarteak antolatutako proban.

Ehiza txapelketa 09:00etan hasi zen eta partaideek lau orduz jardun zuten ehizan. Antolatzaileek 70 eper eta 15 faisai askatu zituzten partaideendako. Zanbrana ehiza barrutian ziren galeperrek ehizatzeko aukera ere izan zuten. Eper bakoitzeko 101 puntu zenbatzen zituzten epailek, faisaiak 100-na puntu balio zuten eta, azkenik, galeper bakoitzeko 25 puntu hartzen zituzten ehiztariek.

## URRIAREN 10ERAKO SAILKATUTA

Esan bezala, eguerdiko ordu batark arte ehizan ibili ondoren,



Argazkian, Vicente Uribesalgo eta Unai Etxeberria.

MIGUEL LAZPIUR

partaideen puntuazioa zenbatzeko ordua heldu zen. Unai Etxeberriak zazpi eper eta galeper bat ehizatu zituen eta berak eraman zuen txapeldunari zegokion trofeo. Ondoren, Jabier Altube (zazpi eper) eta Luis Lenisoro (bost faisai, faisai bat eta hiru galeper) sailkatu ziren, eta laugarren tokian Jabier Juaristi geratu zen; lau eper, bi faisai eta bi galeper

ehizatu zituen Juaristik.

Beteranoen artean, berriz, Vicente Uribesalgo izan zen txapelduna: eper eta faisai bana eta hiru galeper harrapatu zituen.

Sailkapeneko lehen laurak zein Vicente Uribesalgo urriaren 10ean Zanbranan bertan jokatu den Debagoiena eta Urola aldeko txapelketan parte hartzeko sailkatu dira.

FUTBOLA

## Bergara KEko futbol taldeek lau partidu izango dituzte etxean aste bukaeran

Aste bukaeran lau futbol partidu jokatu dira Ipintzan. Infantil mailako taldeak Eibartarrak hartuko du bihar, zapatua, 10:00etan. Eguerdian, berriz, bigarren gazte mailan, Bergara eta Antzuola izango dira aurrez aurre, 12:00etan.

Arratsaldean, berriz, beste bi partidu izango dira: alde batekin, futbol 8-ko nesken taldeak Elgoibarren aurka jokatu du, 15:45ean. Bestetik, lehen gazte mailan, Bergarak Oriokoren bisita izango du, 18:00etan.

SASKIBALOIA

## Kadete mailako mutilen taldeak Cafes Aitona taldea hartuko du zapatuan, Labegarrietan

Bergara KEko kadete mailako mutilen taldeak Cafes Aitona taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegarrietako kiroldegian, 12:00etan. Mikel Etxeberriak zuzendutako mutilek arerio zaila izango dute bihar. Hala ere, bergararrek iaz erakutsitako maila onari eutsi nahi diote aurtengo denboraldian.

Bestalde, ohorezko kadete mailako nesken taldeak 29-20 irabazi zion zapatuan Easo taldeari.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Canalejas-Niu Tim. Kalaberas  
10:30: Kalaberas-FAC. Niu Tim  
18:30: Errotagain-Fit automocion. Bayer  
19:30: Bayer-A Ze Flaxa. Errotagain

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Txipiron-Egurre. Irubide

10:30: Mongatxurak-Irubide. Txipiron

11:30: Brescia-Agirrebeña. Bar Ganbara

12:30: KMT-Bar Ganbara. Agirrebeña

16:00: SDTNT-Pirulotarrak. K. Piperrak

17:00: PDS-Komando Piperrak. All Blacks

18:00: Belengua-All Blacks. PDS

# GORTASUNAREN AURKAKO PREBENTZIO JARDUNALDIAK

## Entzumenarentzako laguntza berriak: Erabateko Diskrezioa



### ● Mikrokanala la-la ikusezina

- ✓ Belarria ezin hobeto egokitzen da.
- ✓ la-la ikusezina.
- ✓ Bigarren mailako zenbait efektu gubitzen ditu.



### ● Belarri barrukoa Erabateko diskrezioa

- ✓ Belarri barruan jartzen da.
- ✓ Oso erosoa.
- ✓ Solua modurik naturalenean erreproduzitzen da.



### ● Belarri atzekoa Entzumenarentzako laguntzaren klasiko bat

- ✓ Dotorea eta anatomikoa.
- ✓ Entzumen-kalitate ezin hobea.
- ✓ Erabiltzeko erraza eta gogorra.

## Audifono analogikoa

55 €-tik aurrera hilean

## Audifono digitala

83 €-tik aurrera hilean

## DOHA KO ENTZUMEN AZTERKETA egitera gonbidatzen zaitugu.

Iskaintzen dizugun aukera honetaz baliatzea espero dugu. Ez utzi geroko, bakarrik hitzordua eskatu behar duzu.

**MULTIOPTICAS**  
**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

LAGUNTZAILEAK:

**GAES**  
ENTZUMEN ZENTRUAK

Otalora, 18 Behea  
Tel.: 943 71 27 93  
**ARRASATE**

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 61 14  
**EIBAR**



# PROFESIONAL *liberalen* GIDA

## GESTORIAK

EGUREN

Irala 3. 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).  
943 45 27 26 / 656 41 55 49

## AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

## ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

## ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

## ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 34. alia

## IEPA LAGUNOK!

Zer moduz pasatu dozue astia? Ondo ezta? Ni lan eta lan ibilli naiz gaurko Apatxiren beste ale bat zuei gertatzeko. Gaurko alian denborapasa asko aurkituko dittuzue: abestixa, jolasa, igarkizuna eta inkestia. Ia zuen gustokuak diren!!



## URREZKO ARAUAK

- Ezer egingo ez dogunez.
- Ezetz jakin zenbat bihatz daren!
- ~~Ya ke ez dogun ezer egingo.~~
- ~~A ke ez dakizu zenbat bihatz daren!~~



## ABESTIXA

### Asteko egunak

Astelehena jai ondoren alferra ezer egingo ez dogunez, ez goiaz lanera.

Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Martitzena eurixa goittik behera busti egingo garenez ez goiaz lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Eguastena osaba ezkontzen da jai hartuko dogunez, ez goiaz lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Eguena amamaren eguna festa ospatu bihar da eta ez goiaz lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Eguakitza hagiñetako miña aspirina hartu eta ez goiaz lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Zapatua egun erdiko lana egun erdixagatik ez goiaz lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.

Domekia lantegia itxitta lan egin nahi baiña, ezin jua lanera. Ez goiaz lanera, ez goiaz lanera.



## JOLASA

**“Ia esaera zahar hauek elkartzeko gai zareten!”**

**H**asteko, Jokalari batek eskuak bizkarrian dittuala, bihatz kopuru bat adieraziko dau. Beste partaidiak lehenengo jokalari horrek zenbat bihatz bereiztuta dittuen asmatu biharko dabe. Horretarako, txandaka, bakoitzak uste daben kopurua esango dau. Asmatzen dabena izango da ondoren bihatzak atzian ezkutatu eta bihatz kopurua bereiztuko dabena.

- Bostak eta illuna
- Lan lasterra
- Dagoenian bon-bon
- Ogi gogorriari
- Sua eta ura
- Zer ikusi

- lan alferra
- txerrixa hiltzeko eguna
- hura ikasi
- belaunetik behera
- ez dagoenian egon
- hagin zorrotza



# ILE APAINDEGIEN GIDA

ESTI, ARANTZAZU, INMA, ELI / ORRASKI ILE APAINDEGIKOAK

## 'Azken tendentzien berri jakiteko urtero joaten gara Madril, Bartzelona eta Londresera.'

**Zenbat urte daramatzazue orrazten?**

25 urte daramatzagu orrazten Orraski ile apaindegian.

**Moda jarraitzaileak zarete?**

Bai, gure lanbidean ezinbestekoa da. Azken tendentzien berri jakiteko urtero joaten gara Madril, Bartzelona eta Londresera. Marka komertzialak Bilbo eta Donostiara etortzen dira eta bertan azken tendentziak erakusten eta irakasten dizkigute. Euskal Herrian, Espainiako beste probintzia batzuekin alderatuz, ileko moda aurreratuagoa dago. Batzuetan gertatzen zaigu, Madrileran joan eta bertan erakusten dizkiguten koloreak ez dira berriak izaten guretako. Klean asko ikasten da.

**Zer-nolako bezeroak dituzue?**

Umeetatik hasi eta nagusietara bitartekoak, emakumezkoak eta gizonezkoak.

**Jendea ausarta al da?**

Bai, jendea ausarta da. Azken 25 urte hauetan moda asko aldatu da, orain orrazkerak ausartagoak dira eta jendea ere gehiago animatzen da orrazkera berriak eramatera. Kolorearekin ere asko ausartzen dira. Orain mutilak gauza desberdinak egiten hasi dira: metxak, kolorea...

**Jendeak zaintzen al du ilea?**

Bai, jendeak geroz eta gehiago zaintzen du ilea. Gure bezeroei ilea ondo zaintzen laguntzeko hainbat tratamendu eskaintzen dizkiegu. Guk normalean lan egiten ditugun etxeak L'oreal, Revlon eta Schwarzkopf dira; dena dela, produktuaren arabera beste etxe batzuetako produktuak ere erabiltzen ditugu.



Esti, Arantzazu, Inma eta Eli.

**Bezeroei aholkuak ematen dizkiezue ala ideia garbiekin etortzen dira?**

Denerako jendea dago. Badaude batzuk ideia eta estilo definitu baten bila datozenak; beste batzuek, berriz, gure esku lagatzen dute guztia. Guretako azken hau oso garrantzitsua da; izan ere, horrek esan nahi du guran konfiantza osoa daukatela. Bezero bakoitza desberdina da, eta orrazkera lehen baino gehiago pertsonalizatzen da. Zer da gehien egiten duzuen momentu honetan?

Kolorea da gehien egiten duguna. Orain dela hamar bat urte hasi zen kolorea indarrez sartzen gure inguruan.

**Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?**

Solariuma, manikura, makillajea eta aurpegiko depilazioa ere egiten ditugu. Gauza bereziak: ezkontzetarako makillajeak eta orrazkerak, luzapenak eta ileordeak.

## ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara

943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

## Aukera onenak

### ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara  
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

### IDOIA

Espoloia 4 - Bergara  
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

### Ostadar

Ibargarai 42- Bergara  
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutzarekin

### AMPARO

Boni Laskurain 2 - Bergara  
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

### IZARRA

San Pedro 23 - Bergara  
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutzarekin

### Pepelu

Zurradero 2- Bergara  
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

### BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara  
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

### KIZKUR

Bolu 51 - Bergara  
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

### Sanchez

Fraiskozuri 4 - Bergara  
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea

### disdira

ile apaindegia

Masterreka 7 - Bergara  
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

### ileak

Ozaeta 3  
BERGARA  
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

ELKARRIZKETA

MIREIA GABILONDO/AKTOREA ETA ZUZENDARIA

# “Zuzendari eta aktore lanak egingo ditut ‘Kutxidazu bidea, Ixabel’ filmean”

IRATI AGIRREAZALDEGI

**D**onostiako Zinemaldia pil-pilean dagoen honetan zinema proiektu baten berri izan dugu. *Kutxidazu bidea, Ixabel* eleberria zinemara eramango dute eta Mireia Gabilondo bergararra izango da zuzendarietako bat.

Antzerkitik pantaila txikira eta orain zinera. Kontatu esku artean duzun proiektua.

Orain dela urte batzuk hainbat lankiderek zinerako gidoi bat lantzen ibili nintzen baina proiektuak ez zuen aurrera egin. Orain, *Kutxidazu bidea, Ixabel* eleberria zinera eramango dugu. Eleberria ezagutzen genuen eta zinerako aproposa zela pentsatuta hasi ginen lanean. Gidoia egiten dihardute eleberraren idazle Sagastizabalek berak, Carlos Zabala eta Nagore Aranburuk. Badirudi asmoa aurrera doala.

**Nola sartu zara proiektuan?**  
Tentazioak ekoizpen etxean nabil, eta Fernando Bernuesek eta biok ideia proposatu genuenean gainontzeko lankideei ongi iruditu zitzaion. Aurrez ere elkarrekin zuzendu ditugu hainbat lan.

**Liburu eta antzezlanaren arrakasta erabakigarria izan da lana aukeratzeko orduan?**

Ez. Lan hau zinemara eramateko kontuarekin hasi ginen estreinatuta berri zegoen antzerkia. Liburua, berriz, orain dela urte asko irakurri genuen. Beraz, ez da arrakastaren ondorioz sortutako proiektua, aspalditik buruan daukaguna baizik.

**Telebistarako ere egokitu-ko duzue lana, ezta?**

Bai, telebistarako kapitulu batzuk egin eta gero hortik filma ateratzea pentsatu genuen. Liburuan ez dauden pertsonaia eta egoera gehiago sortu behar dira.

**Zein da filma aurrera ateratzeko zailtasunik handiena?**

Dirua izaten da beti arazo. Pelikula bat egiteko aurrekontu



BERRIGARA

*“Film bat egiteko aurrekontu murriztena izanda ere diru asko behar da”*

murriztena izanda ere diru asko behar da. Dirurik ezean horrelako proiektu batean sartzea zorarena da. Zinearen industria, gainera, askotan ez dago gure esku. Oraingoan dirulaguntza lortu dugu aurrera egiteko.

*“Euskal zinea gaizki zegoen, eta zerbait eginez gero, gutxi izan arren, onerako izaten da”*

**Filmaketa noiz izango da?**  
Seguru aski datorren urteko udan errotatuko da. Orain dihardugu produkzio aurreko lanetan, eta gauza horiek guztiak lotzen. Lekua ere oraindik zehazteko dago. Alkiza ingurua izan daite-

ke leku bat, istorioa bertan gertatzen delako.

**Zuzenduko duzun filmean aktore lanak egingo dituzu?**

Pertsonaiaren bat egingo dut. Aldaketarik ezean Ixabelen ahizparen papera jokatuko dut. Gai nontzeko aktoreak zein izango diren oraindik erabakitzeke dago.

**Azkenaldian euskal zineak berpizkundea izan duela dirudi. Zein da horren arrazoia?**

Ez dakit berpizkundea esateko modukoa den. Gaizki zegoen euskal zinea eta zerbait eginez gero onerako izaten da. Aurten Telmo Esnal eta Asier Altunarena, datorren urtean gurea; biak euskaraz izanik poztekoa da. Ea hemendik aurrera gauza gehiago egiten diren euskal zinean.

**Asier Altuna bergararrak ere *Aupa Etxebeste!* filma errotatzen dihardu. Zer dauka Bergarak denbora laburrean bi zine zuzendari emateko?**

Kasualitateak ez direla existitzen diote batzuek. Kasu honetan ez dakit zer gertatu den baina herrian pozteko moduan direla esango nuke. Ongi legoke herria horregatik ezaguna izatea.

**Zinean zuzendari eta telebistan aktore ikusi zaitugu. Zer moduz doa *Martin* telebistaoren denboraldi berria?**

Udan 16 kapitulu grabatu ditugu eta aurki hasiko dira ematen. Aktore eta zuzendarion artean giro polita dago. Telesaioarako gidoiak ere idazten ditut eta taldean Asier Altuna ere badabil. Aurten koordinatzaile lanetan ibili naiz, beraz, aktore lanak ez ezik bestelakoak ere egin ditut saiorako. Orain jendeak esan beharko du gustuko duen edo ez.

**Beste asmorik baduzu esku artean?**

Kukai taldearekin batera dantza, musika eta antzerkia uztartuz Oteizari buruzko lan bat estreinatuko dut abenduan. Musika kontuan Bingen Mendizabalek, Mikel Urdangarinek eta Rafa Ruedak dihardute.

KULTURAPILULAK

## Txapa Irratikoek bilera zapatuan gaztetxean

Txapa Irratitik jakinarazi digute bihar, zapatua, bilera egingo dutela gaztetxean 12:00etan. Bilera horren helburua datorren denboraldiko programazioa gertatzea da. Horretarako dei egin nahi die irratsaio bat egiteko gogoia eta ideiak dituztenei bilerara joan eta hauek azaltzeko. Urriaren erdialdean hurrengo denboraldirako programazio osoa aurkezteko asmoa dute.

## Unai Azkarate herriko onena pintura lehiaketan

Ageriko pintura lehiaketaren 31. edizioa izan zen jokoan domekan. 29 lagunek hartu zuten parte, horietatik sei bergararrak. Astrabuduako Migel Arranzek San Pedro eliza irudikatuz egindako lana izan zen irabazle; bigarren, Aitor Lajarin arrasatearra, Labegarrieta ingurua margotu zuen bere koadroan; hirugarrena, berriz, Ignacio Treku izan zen Bideberriren marrazkiarekin. Herriko onena Unai Azkarate izan zen Kultura Etxea marraztuz egindako lanarekin.

## That Fucking Tank bikotea eguenean gaztetxean

Urrutiko doinuak entzun ahal izango ditugu datorren astean. Izan ere, Ingalaterrako Leeds hiritik etorriko da That Fucking Tank bikotea datorren eguenean, hilaren 30ean, Bergaran kontzertua eskaintzera. Emanaldia gaztetxean izango da 21:00etan hasita. Gitarra joko du batek eta baterria besteak, eta Lightning Box, Oxes eta antzerako bikoteen eran *weirsound* musika egiten dute. Adituen esanetan euren musikak The Fucking Champs eta Frank Zappa gogorarazten du.

**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53	Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13
--------------------------------------------	---------------------------------------

**Ganbara**  
TABERNA

**Heure erara ibiltzeko!**

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 55 75

BONOFOTOA



Taberna baten aurrealdean dagoen mosaiko baten zati bat da honakoa. Ze kaletan dago taberna hori?

MIGÜEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

BERGARAROSPETSUAK

Julian Tellaetxe (eta 2)

KOLDO PEREIRA

**P**ertsonaia haiek kartoian irudikatzen zituen gehienetan, estilo argia, modernoa eta aldi berean euskaldun-euskalduna erabiliz. Lagunek *Bergarako zalduntxo*a esaten zioten, eta erakusketak antolatu zituen Europan, Madrilen,artzelona, Bruselan eta Parisen.

1923an Bruno Mauricio Zabalaren erretratua egin zuen Tellaetxek Gernikako Juntetxeko galeriarako, eta geroago Bilboko *La Noche* egunkari riko arte-kritikak egiteari ekin zion, kritika eta sormen-lana uztartuz. 1937an, Espainiako gerraren erdian, Europan ibili zen, Euskal Artearen Erakusketaren buru zela. Parisen bizi izan zen bolada batean, eta handik itzulitakoan erakusketa egin zuen Bilboko Delsa aretoan.

Handik gutxira Limara joan zen bizi izatera, Peruko Arte Ondare Nazionaleko zuzendari izendatu baitzuten. 68 urte zituen orduan, eta *Bergarako zalduntxo*-k ezin izan zuen hainbeste maite zuen Euskal Herria eta hango itsasontzi, arrantza-le eta herritarrak berriz ikusi. 1957ko Gabon-gauean hil zen Liman. Lan zabal eta eredugarria utzi zuen.

*Peruko Arte Ondare Nazionaleko zuzendari izendatu zuten, eta Liman hil zen, 1957an*



Veleros viejos en el puerto lanaren zati bat.

GALDEDEBALDE

**1.** Zein santuren omenez ospatuko dituzte jaiak Angiozarren aste bukaeran?

- A/ San Martin.
- B/ San Migel.
- C/ San Mateo.

**2.** Zeinek irabazi zuen domekan jokaturako Bergarako ehiza txapelketa?

- A/ Unai Etxeberriak.
- B/ Luis Lenisorok.
- C/ Jabier Juaristik.

**3.** Zein telesaiotan ari da Mireia Gabilondo aktore bergararra?

- A/ Aqui no hay quien viva.
- B/ Martin.
- C/ Gazteak.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ONINTZA EGAÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Onintza! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Zabala. / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

La Gula del Norte

200 g.

4,60€

765 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



IRRINTZI  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

JOXAN  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

# Begarako eskubaloi taldea, 1979

Dagoeneko martxan dira Bergara KEko sail guztiak. Talde gehienek hasi dute denboraldia eta gainerakoek hurrengo asteotan jokatuko dute lehenbiziko partidua. Hemendik udaberrira bitartean ez da faltako futbol, eskubaloi, saskibaloi edo pilota partidurik herrian.

Aste honetan Bergara KEk izan zuen lehenengo eskubaloi taldeko irudia dakarkizuegu. Eskubaloi saila 1978-79 denboraldian jarri zuten abian, besteak beste, Pedro Garmendiaren eta Alvaro Espartzaren ekimenari esker. Hala esaten da Bergara KEren 50. urtemuga ospatzeko argitaratutako liburuan. Argazkia ere bertatik jaso dugu. Senior mailako taldearen ondoren, beste mailetako taldeak sortuz joan ziren.

Alboko argazkia 1979. urtekoa da. Garai hartan eskubaloi taldeak San Martin plazan jokatzen zituen etxeko partiduak. Biltoki aldera dagoen plazako zati hori guztiz aldatuta dago gaur. Honako hauek dira argazkian azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Miota, Enrike Aperribai, Xabier Oregi, Pedro Garmendia, Martin Garcia eta Benito Cantero.

Makurtuta: Jose Antonio Zornotza, Juan Carlos Gutierrez, Iñaki Jauregi, Jesus Rodriguez, Luis Etxabarri eta Josean Azpeitia.

Argazkia: BKEko artxiboa.



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



## Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

Pintura-lanak  
orokorrean

•  
Pintura industrial


•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

# ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

## UREDERRA

ITURGINTZA


Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

- L Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



# ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko irailaren 27a / 215. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Bertso-afari batekin zabalduko ditu ateak gaztetxeak, gaur, egubakoitza

AINTZANE IRIZAR


Gaur, egubakoitza, zabalduko dute gaztetxea. Inaugurazio egun horretarako, ekitaldi berezia antolatu dute: bertso-afaria egingo dute gaztetxean bertan. Xabier Silveirak, Fredi Paiak eta Jokin Urangak jardungo dute bertsoan afalostean.

Kalebarrenen, Goñi oinetako dena egon zen tokian, hain zuzen ere, jarri dute gaztetxea. Oraingo astean bertan jarri dute martxan estruktorea eta herritarrek emandako mahaiak eta aulkiak ere badituzte. Gauzak horrela, dena prest dago gaur arratsaldean ateak irekitzeko.

18:00etan, gaztetxearen historiaren gaineko bideo emanaldia egingo dute; 19:30ean, berriz, poteoa egingo dute trikitilariekin eta bertsolariekin, eta gauean, esan bezala, bertso-afaria egingo dute.

### GAZTE GUZTIENDAKO GAZTETXEA

Inauguraziorako ekitaldi hauek guztiak Antzuolako Gazte Asanbladak antolatu ditu. Asanbladako kideek azaldu digutenez, oraindik ez dute zehaztu zela funtzionatuko duen gaztetxeak: "Poli-



Arratsaldean bideo emanaldia eta gauean bertso-afaria egingo dituzte gaztetxean.

ki-poliki, martxan jartzen garenean, gazte guztion artean joango gara zehazten zela funtzionatuko dugun". Dena dela, gauza bat badago zehaztuta: nahi duten gazte koadrila guztiek izango dituz-

te gaztetxeako giltzak. Bost laguneko giltza bat izango dute. Hori bai, giltzak izateko eskubidearekin batera, hainbat betebeharrak ere izango dituzte: gaztetxea garbitzea, esaterako.

Azkenik, aipatzekoa da urriaren 8an ibarreko gazte asanbladen topaketa egingo dutela Antzuolan. Debagoien osoko hainbat gazte elkartu eta afaria egingo dute.

### LABUR

#### Haurtzaindegirako izena emateko epea zabaltzear

Datorren astelehenean, hilak 27, zabalduko dute haurtzaindegian aurrematrikulatzeko epea, eta urriaren 8ra arte egingo da izena emateko aukera. Interesa dutenek udal-letxera jo beharko dute, 08:00etatik 13:00etara, eta Jonerengatik galdetu. 0 eta 2 urte bitarteko umeendako izango da haurtzaindegia, eta Udaleko arduradunek espero dute 2005eko otsailean zabalatzeko moduan egongo dela.

#### Aiherratik etorriko dira ospakizunen aurkezpena egitera

Antzuola eta Aiherra anaitu zirela 20 urte betetzen diren honetan, AEK-k egiten duen antzerako korrika bat egin nahi dute. Gaur, egubakoitza, ospakizun horien berri emango dute, 19:30ean, Olanan etxean. Aiherrako Beltzuntze elkarteko kideak ere hantxe izango dira. Antolatzaile lanean herritarrek jardutea da helburua; hortaz, interesa dutenek gaur dute hitzordua.

### LEHIAKETA

## Argazki lehiaketan, e-postaz bidali ahal izango dira lanak

AINTZANE IRIZAR

Udazkeneko bezala, argazki lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Lehiaketa horretarako lanak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 29ra arte. Aurten berrikuntza bat ere badakar lehiaketa horrek: lanak e-postaz bidaltzeko aukera dago.

Ohi bezala, hiru mailatan banatu dute argazki lehiaketa. 14 urtetik beherakoen maila, 15 eta 25 urte bitartekoena eta 26 urtetik gorakoena bereiztu dituzte. Lehenengo mailan, parte hartzaile

guztiendako egongo dira sariak; bigarren eta hirugarren mailetakoko parte hartzaileen kasuan, berriz, 150 euroko saria jasoko du irabazleak eta 90 eurokoa, bigarren geratzen denak.

Argazkiak 30x40 zentimetroko krema koloreko karti mehe baten gainean aurkeztu behar dira; argazkiaren tamaina egileak berak erabaki beharko du.

Argazkiak berak ez du izan behar egilearen gaineko daturik; atzeko aldean, argazkiaren izenburua besterik ez da jarri behar. Argazkiarekin batera, kartazal itxi baten barruan jarriko dira egilearen datuak.

### E-POSTAZ ERE BAI

Aurten berrikuntza garrantzitsu batekin dator kiguru lehiaketa. Teknologia berrien indarra ikusita, e-postaz ere bidali ahal izango ditugu argazkiak ondoko helbidera: [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net).

Sari berezia izango du e-postaz bidalitako argazkien irabazleak: hain zuzen ere 100 euro jasoko ditu.

### AZAROAN, ERAKUSKETA

Azaroko lehenengo bi asteburuetan, hilaren 6an, 7an, 13an eta 14an, erakusketa egingo dute Olanan etxean, lehiaketara aurkeztu diren argazki guztiekin.



liigo Alonsoren argazki honek jaso zuen iaz lehenengo saria.



SAN MARTIN AZOKA

# Antzuolar baserritarrek eta sukaldariek hainbat sari irabazi dituzte San Martinetan

ANTZANE IRIZAR

Aurreko asteko zapatuan, hilak 18, Bergarako San Martin jaien barruan, azoka egin zuten, urtero bezala. Hantxe, Antzuolako baserritarrek eraman zituzten lehenengo sariak, fruten eta barazkien mailan.


Fruta lehiaketari dagokionez, Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek irabazi zuen lehenengo saria. Barazki lehiaketan, berriz, Lapatza baserriko Maria Jesus Gorritxo eta Tomas Larrañagaren barazkiek eraman zuten lehenengo saria.

Baserritarren esanetan, sariak irabazteko aukera eskaintzeaz gain, Bergarako oso azoka ona da produktuak saltzeko. Badirudi oso erosle onak direla bergararrak baserritarrendako.


Bestalde, Debagoieneko V. Okela Gisatu lehiaketa jokatu zen San Martin jaietan. Handik ere iritsi zen saririk Antzuolara. Bergarako Artatse elkarteak Mikel Gomezek eta Angel Martinek irabazi zuten lehen saria; bigarrena, berriz, Antzuolako Trekütz elkarteak Gurutz Madiariagak eta Ildefonso Garciak lortu zuten.



Produktu ekologikoak ekoizten dituzte Lapatza baserrian.



Era guztietako frutak dituzte Bidaurren: sagarrak, madariak, mahatsa, pikuak...



Gurutz eta Ildefonso okela gisatua prestatzen.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Irailak 25  
17:00: Antzuola-Gazteak (2. erreg.)  
Irailak 26  
11:30: Antzuola-Aretxabaleta (Kadet.)

PILOTA

Irailak 25 (Gipuzkoako Txapelketa)  
17:30: Olalde-Añorga (Gazteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Eibartarrak 2 Antzuola 0 (2. erreg.)  
Antzuola 4 Ekintza 1 (Gazteak)  
Urki 3 Antzuola 10 (Kadetek)  
Antzuola 1 Urola 0 (Neskek)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Olalde-Añorga (eskuz nag.) ... 8-22

LABUR

## Yoga eta eskulan ikastaroetan bina talde osatuko dute

Yoga ikastaroaren kasuan, astelehen eta eguaztenetan, bi ordutegi izango ditu ikastaroak: 17:30etik 19:00etara eta 19:00etatik 20:30era. Eskulan ikastaroan, berriz, eguenetan, 14:30etik 16:00etara eta 16:00etatik 17:30era izango dira eskolak. Datorren asteko egubakoitzera arte, urriak 1, dago izena emateko aukera bi ikastaroetan.

## Eskulan erakusketa, Olaran etxean

Aurreko ikasturtean eskulan ikastaroan ibilitako ikasleen lanekin, erakusketa antolatu dute egunotarako. Oraingo asteburuan, zapatuan eta domekan, izango da erakusketa hori, Olaran etxeko aretoan. Ohiko ordutegietan egongo da zabalik eskulan erakusketa: goizez, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 18:30etik 20:00etara, hain zuzen ere.

PILOTA

# Olalde elkarteak hasi dute denboraldia

Aurreko asteburuan hasi zuten denboraldi berria Olalde elkarteak pilotariak. Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa jokatzeko hasi dira kadete mailakoak eta nagusiak. Ez zuten, baina, oso ondo hasi; nagusiek 22 eta 8 galdu zuten, Zumarragako Belokiren aurka. Kadeteen partidua, berriz, bertan behera geratu zen, aurkariak txapelketa lagatzea erabaki zutelako.

Oraingo asteburuan ere izango dituzte partiduak; nagusiek etxean jokatu dute, Añorgaren aurka. Zapatuan izango da hori, 17:30ean. Kadeteek, berriz, Usurbilen izango dute partidua.

**LAU MAILATAN DITUZTE PILOTARIAK**  
Olalde elkarteak lau mailako pilotariak ditu: eskuz, nagusiak, kadeteak eta infantilak; eta paletaz, nagusiak.

Eskuz, honako hauek osatzen dute nagusien taldea: Josu Agirrek, Xabier Biterik, Iban Unanuek eta Jon Gurutz Biterik. Hala ere, normalean, lehenengo biek jokatzeko dute.

Kadeteen mailan, berriz, honako pilotariak daude: Asier Longares, Aitor Mendizabal, Aitor Jauregi eta Aitzol Iturbe.

Infantil mailan, Ibai Zabalok, Jon Iturbek eta Markel Letek

dihardute. Paletaz, azkenik, honako jokalariek hauek osatzen dute taldea: Gotzon Zabalok, Iker Mansok, Gorka Iturbek eta Balendin Zabalok.

Bukatzeko, aipatzekoa da benjamin eta alebin mailako neska-mutikoen ere Olalde elkartearekin entrenatzen dutela. Bigarren mailatik aurrerako 30 bat ume ibiltzen dira, eta eskola arteko txapelketetan jarduten dute.

# DANBAKA

DEBAGOIENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Parte har ezazu  
Goienak eta  
Espaloia Kafe Antzokiak  
antolatzen duten musika lehiaketan

Estilo guztiak ditugu gustuko,  
zuena ere bai!

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko irailaren 27a / 199. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Dirulaguntza eskatuko du Udalak Uriarte auzora ura eramateko

IRATI AGIRREAZALDEGI


**Baserritarren batzordea elkartu zen astelehenean udaletxean, eta, beste batzuen artean, Mendi Nekazaritza Elkartetik jasotako dirulaguntzak izan zituzten berbagai. Hau da, aurten diru horrekin egindako lanak eta datorren urterako proiektuak.**

Aurten Uriarte auzora ura eramateko azpiegiturak egin dituzte Mendi Nekazaritza Elkartetik jasotako dirulaguntzekin. Lanen bigarren fasea amaituta dago, eta 121.108 euroko kostua izan du.

Azpiegiturak amaitu gabe daude, eta datorren urterako proiektuetan hau da azpimarragarriena: Uriartera urak eramateko lanen hirugarren fasea.

Hirugarren fase horretan sei baserritara ura eramatea da asmoa: Oleiko lau baserri, Iribeiturriaga eta Aranburu baserrietara, hain zuzen ere.

Lanok egiteko gutxi gorabehera 60.000 euro beharko direla aurreikusi dute, eta Udalaren asmoa Mendi Nekazaritza Elkarteari datorren urterako dirulaguntza eskatzea da.



Uriarte auzora ura eramateko lanen bigarren fasea aurten egin dute eta datorren urtean hirugarrena egiteko asmoa dago.

### PINUDIETAKO KALTEAK

Baserritarren batzordean landutako beste gai bat pinudietako kalteena izan zen. Udalak dirulaguntza eskatu nahi du Foru

Aldundian, baina laguntzen kopurua erabakitzeke, aurrez kalte-tuen zerrenda, azalera, eginbeharreko lanak... zehazteko eskatu dute.

Beraz, kalteak izan dituztenek udaletxera joan beharko dute datuak ematera, irailaren 30a baino lehen. Urrian bilera egingo da kaltetuei informazioa emateko.



### Maialen eta Iratxe irabazle

Sagardo Eguna egin zuten zàpatuan, Gazte Asanbladakoek antolatuta, eta giro onean, besteak beste, hainbat lehiaketa izan ziren plazan. Tortilla lehiaketan lehenengo saria Iratxe Castañok eta Maialen Garatek osatutako Kutxilo Bila taldeak jaso zuen. Azken taldeak ere izan zuen saririk, Txapelak, hain zuzen ere; baita tortillarik originalenak ere, Aralarkoenak. Bestalde, mozorrorik politena ere saritu zuten, eta hemen ere irabazleak Kutxilo Bilakoak izan ziren./I.A.

### LABUR

#### Ozkarbiren batzar orokorra irailaren 30ean izango da

Ozkarbi elkarteak urteko batzar orokorra egingo du irailaren 30ean, eguena. Bilerara 21:00etan izango da elkartean bertan eta 303 bazkideei egin diete dei bertara joateko. Batzarrean, besteak beste, urteko balantzea egin eta datorren urterako aurreikuspenak azalduko dituzte. Bide batez batzordeko kide berriak zein diren esango dute. Ondoren, lehendakaria hautatuko dute kide zaharren artean eta lehendakariordea sartu berri diren artean.

#### Erretiratuendako hipertentsioaren gaineko hitzaldia

Herriko erretiratuen eskariari erantzunez Kutxak osanaren gaineko hitzaldi informatibo bat antolatu du. Hitzaldia datorren eguenean, irailaren 30ean, izango da, 19:00etan udaletxean. Aditu batek egingo du berbaldia eta landuko den gai nagusia arteria hipertentsioa izango da. Adineko jendearendako gai interesgarria eta garrantzitsua izanik, erretiratuen elkartetik dei egin nahi diete elgetarrei hitzaldia entzuterara joan daitezen.

#### Kilometroak jaira joateko autobusa antolatu dute

Gazte Asanbladak autobusa antolatu du datorren domekan, urriaren 3an, Kilometroak jaira joateko. Orion eta Zarautzen ospatuko da aurten Gipuzkoako ikastolen aldeko festa, *Olatu berria* lelopean, eta bi herrietan banatutako ibilbideak guztira 15 kilometro izango ditu. Elgetatik autobusa 09:00etan irtengo da eta buelta, berriz, 21:00etan egingo du. Autobuserako izena eman nahi dutenek Haizea tabernara edo gaztetxera jo beharko dute.

INGURUMENA

# Egoarbitzako zuhaitzei babesa ipintzeko irteera antolatuko dute Udalak eta Mayak

Zuhaitz Egunean Egoarbitza inguruan landatu zituzten zuhaitzak hondatzen hasi direla eta, hauek babesteko ardura hartu du Udalak. Maya ingurumen taldearekin batera irteera bat antolatuko du umeendako zuhaitzei babesa ipintzeko.

Martxoan, Zuhaitz Egunean, hogei zuhaitz (haritzak eta pagoak) landatu zituzten hainbat nekamutilek gurasoen eta Maya ingurumen taldekoen laguntzaz Egoarbitza inguruan.

Zuhaitzak landatu arren ez zieten inolako babesik ipini inguruan, eta ondorioz, hainbat kalte izan dituzte. Izan ere, animaliek hondatu egin dituzte, beste

ak beste hostoak eta enborretako azala janez.

Datorren urteko Zuhaitz Eguna arte zain egon gabe zuhaitz hauek babesteko ardura hartzea erabaki du Udalak.

**IRTEERA**

Horretarako, Baserritarren Batzordeak Maya ingurumen taldearen laguntzaz Zuhaitz Eguneakoaren antzerako beste irteera bat antolatzea erabaki dute.

Irteeraren eguna oraindik zehazteke badago ere, aurrez jakinaraziko dute. Egun horretan Egoarbitza mendia magalera joan eta zuhaitzei babesa ipiniko diete.

Egitasmoaren helburuak ingurumena zaintzea gain, umeak zuhaitzak babestu beharraz kontzientzia da.



Zuhaitz Egunean 20 haritz eta pago landatu zituzten Egoarbitzan.

ARTXIBOA

LABUR

## Eskulan ikastaroan izena emateko epea zabalik

Ikasturtea hasi da askorendako eta eskulan ikastaroko ikasleek ere urriaren 4an hasiko dute jarduna. Bi talde izango dira astelehenetan, eguerdian, 14:00etatik 16:00etara eta gauetz 20:00etatik 22:00etara. Beira, egurra, ogi mamia... izango dira erabiliko dituzten materialak eta altzari zaharrak ere berrituko dituzte. Aurten berrikuntza modura kizarak margotzen egingo dute ahalegina. Materiala ikasleek eurek eraman beharko dute egin nahi duten lanaren arabera. Iaz ikastaroan, ibili zirendako ez ezik aurten beste norbaitek izena eman nahi badu ere atea zabalik izango duela esan digute antolatzaileek. Horretarako, liburutegira joan beharko dute arratsaldean.

KIROLA

# Ozkarbiko pilotariak fin klubean arteko txapelketan

Ozkarbi elkarteko pilotariak fin hasi zuten joan zen astean klubean arteko txapelketa.

Ozkarbi elkarteko sei pilotarik dihardute txapelketan: Ubera anaiek, Azagirrek, Txurrakak, Txikitok eta Arantzetak. Pilotariak txandaka jokatu dute, eurretako bi lagunek bina eta beste batek buruz burukoan, kontuan hartuta honetan ez ezik beste txapelketa batzutan ere badihardutela.

**ASTEBURUAN IRABAZI**

Joan zen asteburuan izan zituzten lehen bi partidua eta biak irabazi zituzten elgetarrek.

Banakako norgehiagoka Azpeitian izan zen eta 22-6 irabazi zuten partidua etxekoan aurka. Binaka, berriz, etxean, Elgetako

pilotalekuan, jardun zuten Eskoriatzako bikotearen aurka eta emaitza 22-4 izan zen.

Asteburu honetan bi partidua etxetik kanpo jokatu dituzte Ozkarbikoek: Aretxabeltan eta Amezketan.

Aurten talde ona dutela eta txapelketan zerbait lortzeko gai izango direla uste du Juan Luis Ubera Ozkarbiko pilota saileko arduradunak.

**BESTE TXAPELKETAK**

Klubean arteko txapelketa Gabonak arte luzatuko bada ere, tartean beste hainbat torneotan parte hartzeko aukera izango dute Ozkarbikoek: Zaldibarkoan Xabier Uberak hartuko du parte, DV torneoan Ozkarbi taldean jarduten duen Iker Azagirre bergarrak eta gainontzekoak Lezaman izango dira.



## Espaloira doan bidean konponketak egiten hasi dira



Espaloia kafe antzokira doan bidean konponketak egiten hasi dira. Bidea lautu egin dute eta harri txintxarrak bota. Hau lanen lehen fasea da eta horrekin batera bidearen aldamenen zintarria ipiniko dute apurtuta dagoen hesiaren ordean. Argiztapena ere oso urria denez, hiru edo lau farola ere jarriko dituzte. Bigarren fase batean, datorren urtean, bidea asfaltatzeko asmoa dago./I.A.

**DANBAKA**

DEBAGOIENEN I. MUSIKA LEHIAKETA

Parte har ezazu Goienak eta Espaloia Kafe Antzokiak antolatzen duten musika lehiaketan

Estilo guztiak ditugu gustuko, zuena ere bai!





# Indartsuago.

**Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.**

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

**DHL Express Bergara**  
San Juan Erreka 33  
20570 - Bergara  
Tel.: 943 763 642  
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 